

2006KO URRIAREN 26KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta seiko urriaren hogeita seian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Xabier Arrasate Aierbe, Gorka Lamy Insausti eta Angel Olaso Villalba.

Igor Sarriegi Zumarraga eta Juan Manuel Serna Portugal zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko da Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

II.- HILERRIKO ARAUTEGIAREN ALDAKETA.-

Udal hilerrian hilobiratzeak egiteko nitxoak eraiki berri dira. Hau horrela nitxoek tapak zer nolakoak izan daitezkeen aztertu ondoren eta gutxieneko berdintasuna egon dadin, tapak hauek izango dituzten ezaugarriak arautzea dela egokiena irizten da.

Nitxoek tapak izan behar dituzten ezaugarriak eta aukerak jar daitezkeen testu, irudi eta ereduak bere espedienteko dokumentazioan agertzen direnak dira, baita ere dokumentazio horretan dauden planoetan azaltzen diren neurrietan eta laburbilduta ondorengo hauek dira:

Testua: grabatutakoa izango da. Letra mota: euskal letra. Altuera eta tarteak: eransten den planoan azaltzen denaren arabera. Jarri ahal izango direnak: izen abizenak, jaio-tza data, heriotza data, legenda (hitzak).

Ereduak: grabatuak izan beharko dira. Aukerak: Argazkia, 8x10 zm., zeramikazkoa; Gurutzearen grabatuak, 35x15 zm.koak; Irudiaren grabatuak, 23x20 zm.koak; Lauburuaren grabatua, 10x10 zm.koa.

Nitxoek tapak jartzearen kudeaketa udalak berak hartuko du bere gain. Horretarako hilobiratuaren senditartekoek, horretarako prestatutako eskakizun orrian, eskakizuna

egino dute dauden aukeren artean zer jarri behar den aukeratuz, eta udala arduratuko da tapa egin eta jartzeaz. Lanen kostuari aurre egiteko dagokion tasa likidatuko da, tapan osagarriak jartzea eskatuz eskakizuna egin duen eskatzailearen izenean.

Olaso zinegotziak (PP) esaten du taparen inskripzioak bi hizkuntzatan jarri beharko liratekela.

Alkateak erantzuten dio araudian arautuko dena neurriak eta letra tipoak direla eta hizkuntza norberak aukeratutakoa izango dela.

Nitxoen tapa jartzearen kostuari buruz egindako azterketaren ondorioz, onartzea proposatzen diren tasak honako hauek dira:

- Tapa kendu, aukeratutako osagarriak jarri eta berriro nitxoan jartzea .. 23,20 €
 - Testua grabatzea.....104,57 €
 - A erreferentziako grabatua, gurutzea.....50,11 €
 - E erreferentziako grabatua, gurutzea.....69,60 €
 - C erreferentziako grabatua, irudia.....110,20 €
 - G erreferentziako grabatua, irudia102,08 €
 - Grabatutako lauburua50,11 €
 - 3472 erreferentziadun loreontzia46,26 €
 - 518 erreferentziadun loreontzia48,37 €
 - Koloredun argazkia inoxidabledun altzairuzko inguruarekin.....90,63 €
- Testuaren inskripzio estandarraz gain beste testuak hizki bakoitzeko 1,01 € ko tasa izango du.

Argazkia jarri nahi den kasurako , hau eskatzaileak berak ekarri beharko du.

Guzti honen aurrean, eta hirigintza, obra eta zerbitzuetako Batzordearen proposamena ikusirik, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere pardaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Lazkaoko udal hilerriaren arautegia hasierako izaerarekin aldatzea, nitxoen tapak jartzeari buruz, akordio honen azalpen zatian adierazitako zehaztasunak jasoz eta bere osotasunean bere espedientearen dagoen dokumentazioan adierazitakoaren arabera.
- 2.- Akordio hau jendaurrean edukitzea hilabete bateko denboraldian alegazio ondorietarako.
- 3.- Jendaurreko denboraldian inolako alegaziorik aurkeztuko ez balitz, hasiera akordio hau behin betikoa bihurtuko litzateke, akordio espreso berri baten beharrik gabe.

III.- TAXIEN HIRI-TARIFAK.-

Gipuzkoako Taxisten Elkarteak 2007 urterako hiri-tarifen proposamena bidali du Udal honetara. Hiri-tarifa hauek Goierriko herri guztietarako berdinak planteatzen dira.

Hiri-tarifen proposamen hau, Udal Osoko Bilkurak onartzea erabakiko balu behintzat, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Departamendura bidali behar da honek onar dezan, eta Goierriko Udaletako espediente guztiak GOIEKIren bidez izapidatu nahi dira.

Proposamenarekin batera auto-taxien ustiaketak dituen gastu eta sarreraren azterketa bidali dute baita ere.

Guzti hau kontutan izanda, gaia aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabaki hauek hartzen ditu:

1.- 2007 urterako auto-taxi garraio zerbitzuetarako hiri-tarifa hauek onartzea:

HIRI - TARIFA					
1 TARIFA (astegun eta egunezkoa)			2 TARIFA (gauezko eta jaiegunetakoa)		
Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua	Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua
2,8697	0,8996	17,1872	2,8697	1,4348	27,0085

2.- GOIEKI ahalmentzea Lazkaoko Udalaren izenean espediente hau Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Departamenduaren aurrean izapidatu dezan.

IV.- PRESOEN GAIAREN INGURUAN AURKEZTUTAKO MOZIOAK.-

Areria Zutabeak bi mozio aurkeztu ditu presoengaiaren inguruan, bat irailean eta bestea aste honetan.

Mozio batek honela dio:

“Behin baino gehiagotan eskatu zaie Udal honetatik Estatu espainiarrari eta frantziarrari beraien espetxe politika aldatzeko. Presoen eta beraien senitartekoen aurkako mendekua beste oinarririk ez duen politika horrek, sufrikarioa beste ezer ez du ekartzen Euskal Herrira. Horregatik, euskal gizarteak berak ere hainbat aldiz, beste hainbat modutara eskatua du bortxazko eskubideen ukazio iraunkor horrekin lehen bait lehen bukatzeko.

Urteetan zehar gizaki eta preso gisa dagozkien oinarrizko eskubide denak zanpatu ondoren eta zigor osoa beteaz kanpora irteteko garaia iritsi zaienean, zigor berriak egotzi nahi zaizkie, Nazioarteko Zuzenbidearen oinarrizko arau denak gainetik pasatu eta praktikan hil arteko zigorra martxan jarriaz. Kartzela politika hau Euskal Herrian ireki nahi den prozesu politikoaren kontrako norabidean doa.

Presoak bahitu politiko gisa erabili nahi dituen kartzela politika honi emandako erantzun gisa ulertu behar da Iñaki de Juanaren gose greba. Abuztuaren 7an hasi eta gaur arte luzatzen den ekimen honek, herri eragile eta herritarren babesarekin batera Estatu frantziar zein espainiarrek kartzela politika aldatzeko balio behar du. Ekimenaren gor-

dintasunak, nozitutako injustizia uzten du agerian eta presoek eskubideen urraketak irauten duen egun bakoitzak, atzera ezinezko ondorioak sortu ditzake.

Hau den kontutan izanik eta instituzio publiko gisa, Udal honek herriaren aurrean duen ardura bere gain hartuaz, honako puntu hauek aurkezten ditu Osoko Udal Batzarrean eztabaidatu eta onartuak izan daitezen:

- 1.- Udal honek, euskal preso politikoen eta bereziki Iñaki de Juanaren aurkako zigor politika bertan behera utzi eta bere berehalako askatasuna exijitzen dio Espainiako Gobernuari. Era berean, Udal honek, bere elkartasuna adierazi nahi dio Iñaki de Juanari.
- 2.- Udal honek, indarrean dagoen legea egikaritzuz, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten eta zigorraren 2/3 beteta duten presoek askatasuna eskatzen du.
- 3.- Udal honek, euskal preso politikoen eskubide guztiak errespetatuak izatea exijitzen die frantziar eta espainiar Gobernuei, eta presoak egoera politikoaren baitan truke-txanpon gisa erabiliak izatea ez dugula onartuko adierazten du. Era berean, presoak, Euskal Herriak Estatu espainiar eta frantziarraren aurka duen gatazkaren ondorio diren heinean, konponbide prozesuan ere parte hartzeko duten eskubidea aldarrikatzen du Udal honek.
- 4.- Erabaki honen berri, Rodriguez Zapatero Espainiako Presidenteari eta herritar guztiei emateko konpromisoa hartzen du Udal honek.”

Beste mozioa lehenengoaren nahiko antzekoa da eta aldatzen den bakarra zera da

“4.- Herriko preso diren Belen Gonzalez eta Anitz Eskisabelek hurrengo asteetan izango dituzten epaiketak direla eta, euskaldunen eskubideak etengabe urratu eta zilegitasunik ez duen Audientzi Nazionalaren deusezteak eskatzen dugu.”

Gai honen inguruan Alkateak, EAJ eta EAren izenean, esaten du beraien jarrera ondoren irakurriko duen honetan laburbiltzen dela:

“1.- Gure egiten ditugu, Euskal Legebiltzarrak espetxe politikan hartutako akordio guztiak. Baita ere, legebiltzar horretan hartutako akordioak, non espetxeratuta dagoen pertsona orok, bere ingurune sozial eta familiarretik gertueneko espetxean egon behar duela esaten bait da, hala nola hezkuntza, kultura, hizkuntza eskubideak eta, espetxe legediak berak jasotzen dituen onureta baliatzeko eskubidea jasotzea aldarrikatzen dutenak ere.

Era berean, eta zehazki Iñaki de Juanak eta beste kasuak bizi duten egoeraren aurrean gurea egiten dugu Eusko Legebiltzarrak 2006ko maiatzaren 17an, *Auzitegi Goreneko Penaleko Salak zigorren akumulazioari buruz adierazitako irizpide al-daketa* dela eta hartutako akordioa.

Akordio honek honela dio:

“Eusko Legebiltzarrak adosten du:

1973ko Kode Penalaren arabera ezarritako zigorren akumulazio eta erredentzioari buruz Auzitegi Gorenak adierazitako irizpide aldaketari bere errefusa adieraztea. Aldaketa honek, norbanako eskubideei buruzko, xedapen zigortzaile aurkako edo murriztatzaileen, legalitate, segurtasun juridiko eta atzeragarriezintasunak urratzen ditu. Eskudun diren organu eta instantziek araudia 197/2006ko epaiaren aurrez egiten zuten zentzuan aplika dezatela eskatzen du.”

2.- Estatuko Gobernuari, euskal erakundeek espetxean dauden pertsonen eskubideen errespetoaren alde hartu dituzten akordioak praktikara eramán ditzala eskatzen diogu.

3.- Konbikzio politikoko delituengatik espetxean zigortuak dauden, eta mota honetako ustezko delituengatik irekitako prozesu penalen ondorioz prisio prebentiboan dauden euskal gizon eta emakumeak, eskubideen sujetu direla adierazten dugu, eta euskal hiritar bezala egikaritzeko aukera izan behar dute.

4.- Oroar preso guztientzat, baina bereziki Belen Gonzalez eta Anitz Eskisabelen kasuetan, beraien eskubide guztiak errespetatuak izan daitezela, eta beraien prozesuak berme guztiekin burutu daitezela eskatzen dugu.”

Gaineratzen du beraien proposamena azkena irakurri duen testua onartzearena izango litzatekela.

Une honetan Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia bertaratzen da.

Olaso zinegotziak (PP) esaten du Eusko Legebiltzarrarena ondo ikusten duela, oso onargarriak diren edukiak dituela baina benetan kontutan izan beharrekoa zera dela, botereak hiru direla, betearazlea, legegilea eta judiziala, eta botere judizialak beste inolako boteretatik ez duela esku-sartzerik izan behar eta honek hainbat ebazpen eman dituela eta gustatu ala ez, horiek hor daudela. Esaten du baita ere, bera ikuspuntu horretatik abstenitu egingo dela ezin duelako justiziak ezarritakoaren aurka joan. Esaten du baita ere, bere iritziz, demokrazian ez dagoela preso politikorik baizik eta delituengatik presoak daudela. Esaten du baita ere gaisotasun sendaezinak dituzten presoen askatasuna presazko eskakizuna dela eta berehalakoa izan beharko lukeela. Esaten du baita ere Euskal Herriak espainiar eta frantsez estaduekin daukan gatazka politikoa instantzia goreneko gai politikoa dela eta ez duela uste udalerrria denik bere iritzia emateko fororik egokiena.

Guzti honen ondoren gaia bozketan jartzen da eta honetarako lehenengo Areria Zutabeak aurkeztutako mozioak jartzen dira bozketak eta berauek atzera botatzen dira aldeko boturik gabe, aurkako 9 botu (EAJ, EA) eta abstentzio batez (PP).

Jarraian bozketan jartzen da Alkateak EAJ eta EAren izenean aurkeztutako mozioa eta berau onartu egiten da aldeko 9 botu (EAJ, EA), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PP).

V.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Jendartetik bere iritzia ematen du lagun batek presoen egoerari buruzko gaiaren inguruan.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.